# Puntua, koma eta bi puntuak

**1** Irakurri, eta konparatu bi testuak. Zein iruditzen zaizu irakurtzeko errazagoa?

**A** OHARRA

Laster hasiko da gure ikastetxeko esku pilota txapelketa datorren asteartean hain zuzen txapelketak Eguberrietara arte iraungo du lehen buruz burukoa pilotari hauek jokatuko dute Joseba Martinezek eta Edgar Quirogak

**B** OHARRA

Laster hasiko da gure ikastetxeko esku pilota txapelketa, datorren astearteaan, hain zuzen. Txapelketak Eguberrietara arte iraungo du. Lehen buruz burukoa pilotari hauek jokatuko dute: Joseba Martinezek eta Edgar Quirogak.



**2** Aukeratu puntua, koma edo bi puntuak, eta berridatzi zeure koadernoan.

Igela ☐ amuarraina ☐ marigorratza eta matxinsaltoa elkarrekin hizketan hasi ziren ☐ Igelak ez zion matxinsaltoari fitsik ulertzen ☐ eta haserretu egin zitzaion ☐ Hala esan zion azkenean ☐

—Egon hadi geldirik une batez ☐ berdelerdo ☐ eta hitz egin ezak mantsoago!

**3** Irakurri esaldiak, eta aukeratu erantzun zuzenak.

a Adele, ekarriko al dizkidazu artaziak?

- Zertarako erabili da koma?
  - ☐ Norbaiti dei egiteko.
  - ☐ Esaldia bukatu gabe utzi dela adierazteko.
  - ☐ Esaldi amaiera adierazteko.

b Hiru gauza ekarri behar dizkidazu: galtzerdi berdeak, eraztun bat eta betaurrekoak.

- Zertarako erabili dira bi puntuak?
  - ☐ Galdera egiteko.
  - ☐ Hitz zerrenda baten aurretik, hasiera emateko.
  - ☐ Esaldi amaiera adierazteko.
- Zertarako erabili da koma?
  - ☐ Paragrafo amaiera adierazteko.
  - ☐ Hitz zerrenda bateko elementuak bereizteko.
  - ☐ Esaldi amaiera adierazteko.